


TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria
2012ko maiatzaren 11
317. zenbakia, 23. urtea



Arrokek esanak entzuteko

Herrio taldearen gonbita duzue barruan, harriek kontatzen diguten historia ezagutzeko. Sartu arroken hitzak haien bidez entzutera.

05

Orioko kontuak
Aldaketak kanpinean

10

Aiako berri
Azokako lorazainak

19

Adarretatik helduta
Aitziber Agirre

25

Herritarra
Iban Eiguren

26 GURPIL

Bonavite 2 - 8 - 20010 Orio (Gipuzkoa)

943 333 888 www.26garpil.com http://www.26garpil.com

agirresarobe
PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

OBRA BERRIEN PROIEKTUAK •
ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK •
FATXADEN ERABERRITZEAK •
IGOGAILUEN PROIEKTUAK •
GREMIO KOORDINAKUNTZA •
INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ... •

ITURRIBIDE 5, 5. BULEGODA, ZARAUTZ
SORJA AGIRRESAROBEL ARKITEKTOA 635 731732

ANATORIO ZARAUTZ
EUROFUNERARIAS TALDEA

Hilabete eta zerbitzu orokorrak

* Donostia eta probintziako ospitaleetatik
* Aldiaroko zerbitzuak
* Belatorio gelak
* Koroak, eskulak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
Tel: 943 50 40 17 / Fax: 943 50 40 48
e-mail: hantop@hantopit.net

ARKAITZ
Taberna

Pinxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarieko mundialak

ABELASABATEA, 1 Tel: 943 33 16 57

LUXARBE
Igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnos: 943 59 59 00

azkue

Tf: 943 13 04 38

Allianz

Marigre Zaldua
aseguru agentea

Euzko Ondo, 10 behe-oina
Telefonoa: 943 13 47 90
fax: 943 51 57 52
e-mail: zaldua.dolores.pa@allianz.es

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasnet.com/argine
Tel: 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

edariak
ANTILLA
jateak

Alfonso Barrio 2 - TEL: 943 33 10 00

azkue
karrozeria

Ubegetun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
T/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

Automóviles ZARAUTZ

ETIKETA ZERBITZU DEIALA

ZARAUTZ, TEL: 943 13 13 50

Dorronoro Denda
1963tik zure ondoan

BETIKO DENDA

Tel 943 83 09 37

BARAKA
estilo berria

Igeltseritza
Pinxoak
Plater konbinatuak
Eskulak jentaria

943 13 13 12
Aia-Orio

Igo zaituz haize berristora!

Galeña

943890416 - 677149994
galeñaTonio@tristanail.com

INDO
Garraio frigorifikoa
NACIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olasgoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Briboitar bati jarriak

1

*Nos llena de orgullo
y de satisfacción.
Soy rey de Ezjakiña,
de toda la nación.
Un vascuence de esos
hizo esta canción.
Akordatu Ximelek
zer kantatu zion.*

2

Diktadore txikiak
zigun ezarria,
lehengo asto zahar bera
buruko berria.
Gerozkitan ez zaio
oldartu herria.
Ederki gizendu da
briboitar zerria.

3

Ezagutuak ditu
hainbat Urdangarin,
hizketa egoki ta
guante zuriakin;
diplomatiko beti
eskopetarekin.
Ia ez dan topatzen
elefanteakin.

4

Merke atera zaio
Juankarri tronua,
Ezjakingo herriak
patuz mantenua.
Garaiz gera oraindik
mozteko lepua;
erdoitutako trontza
baten bila nua.

5

Euskal herritar batek
dizu hau sinatu,
barruan zituenak
nahi zitun askatu.
Briboi herentziakin
behar deu bukatu,
lo dagoen herria
dadila esnatu.

317

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

**Kultur Etxea,
Eusko Gudari, 26
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com**

Editorea
Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria
Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua
Irati Agirreazaldegi

Erredakzio taldea
Pat Cowie,
Miren Etxeberria,
iker Gurrutaga, Eli Lasa
eta Jabier Zabaleta

Publizitatea
Pat Cowie

Publizitatearen diseinua
Lore Berasaluze
eta Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa
Miren Etxeberria
eta Jabier Zabaleta

**Ale honetako
laguntzaileak**
Aitziber Agirre,
Andoitz Antzizar,
Aitor Arregi,
M. Pilar Eizagirre,
Herrio natur taldea,
Iñaki Iturain,
eta Jone Olaskoaga

Laguntzaileak
Zigor Esoain

Diseinua
Danel Agirre Lertxundi

Banatzaileak
Cristina Burlacu eta
Iban Recio (Ori) /
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia
Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.100 ale

KARKARAK ez du bere gain
hartzen aldizkarian
adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.
KARKARAN argitaratutakoa
berreman daiteke, osorik edo
zatika, baldin eta iturria
aipatzen bada.



PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

**Publizitatea kontratatzeko Pat
Cowierekin hitz egin (695 78 07
20) edo karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZa gehituko zaie**

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Hamabost urte ospatzeko kantu-jira

Egunsenti abesbatzaren 15. urteurrena dela eta, Udalarekin bat eginik, urtean egiten ditugun ekitaldien artean kantu-jira egingo da Orioko kaleetan barrena.

Argitu nahi genuke kontua ez dela Egunsenti taldea bakarrik edo beste 15-20 lagun elkartuta izatea. Oraingoan, gehiago nahi dugu. Alegia, Egunsenti hor izango da, hala ere, esan dezagun, zimentu gisara, ez bere errepertorio propioa abestuz, normalean egin ohi dugun bezala. Nahi duguna da ahalik eta jende gehien elkarrekin abesten izatea. Horretarako, saiaturako gara, ahalik eta kantu ezagun eta politenak biltzen. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu gugana hurbildu eta bai Gabon jai eta beste hainbat ekitalditan herria girotzen lagundu digutenei.

Orion arrauna maite dugu; baina, beste gauza askoren artean, kantua ere bai. Paperak prest izango ditugu bildutako kantuekin, eta ez da entsegurik izango. Zuzenean kalera. Zerbait errazagorik izan al daiteke? Horregatik, nola nagusi, gazte zein heldu, denok bat egin eta, txakolin bat edo beste bitarteko, eguerdi polita gozatzeko. Bizitza nahiko laburra denez, gai garen bitartean, aprobeitza ditugun ondo pasatzeko ditugun uneak. Utzi lotsak, eta ea garai batean kantatzeko genuen ohitura eder hura berreskuratzeke gai garen.

Maiatzaren 13an, eguerdiko hamabietan, Danbolin Musika eskolako inguruan elkartuko gara. Seguru biltzen garenok ondo pasako dugula. Aupa Orio!

■ Egunsenti abesbatza.

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN helbidera bidali daitezke edo gure lokalean eskuz entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidali daitezke honako helbidera: karkara@karkara.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

Pixkanaka hobetuz goaz

Pasa den astean saskibaloiko eskola kiroleko finalak jokatu ziren Karela kiroldegian. Urte osoko lanari azken erremate ematea baino ez zitzaion falta guztien partetik.

Aurten partida asko jokatu dira Karela kiroldegian eta, lehenik eta behin, bertako langile eta arduradunei eskerrak eman nahi dizkiet. Ez eskola kirolarekin jarritako arretagatik bakarrik, baita urte guztian eskatutakoa, posible zuten neurrian behintzat, eman digutelako. Aurterantzean ere ea horrela izaten den.

Bigarrenik, eskola kirolean lanean jardun diren guraso eta monitoreei ere eskerrak eman behar. Horiek egiten duten lana ere txalotzekoa baita. Astea joan eta astea etorri, haurren aisialdia *betetzeko* beharrezkoak baitira boluntario hauek.

Epaile lanetan jardun diren federatutako jokalariei ere bejondeizuela. Hain gazteak izanik ez baita erraza batzuetan otsoa bezala jartzen diren guraso, jokari eta monitorean –guk entrenatzaile deitu arren– presiopean aritzea. Izen asko dira eta guztiak ezin aipatu.

Eta, zuei, gurasoei, zer esan? Bada, urtetik urtera zuen jarrera ere hobetzen ari dela. Finalean eta finalerdian epaile lanetan aritu nintzen eta zoriontzeko hitzak baino ez ditut jaso kalean. Partida jokatzeko denboran, lehen hiru ziren *zibilizatuak* eta orain hiru dira *astakirtenak*. Horrek asko esaten du zuen alde.

Eta hau guztia, entrenatzaile lanetan sutsua den batek idazten du. Sutsua bai, baina beti besteekiko errespetua mantenduz. Jokalariei aurkariak eta taldeki-deak errespetatu behar direla irakatsiz. Epailen lana kritikatzeko dut bai, baina errespetuz eta soseguz hitz eginda. Eta jokalariei azpimarratuz beti epaileari ez zaiola kexatu behar.

Balore gutxi batzuk ikastea nahikoa da, kirola benetan handi egiteko. *Astakirtenik handiena lezioak ematen* pentsatuko du baten batek. Bada, ez. Zorionak emateko idazten dut. Badirudi-eta, behingoz, eskola kirolaren filosofia barneratzen ari garela. ■ Iker Gurrutxaga Zubimendi. Saskibaloiko entrenatzailea

Karkara lagundu nahi dut: Karkara aldizkariaren laguntzaile izan nahi dut eta prest nago Karkarari urteko 35 euroko laguntza emateko.

Izen deiturak:

Helbidea:

Herria: Posta kodea: Tel.:

Kontu korronteko zenbakia:



Itxura aldatzen ari da kanpina berrikuntza lanekin; hala ere, aldaketa nabarmenenak bungalowak jartzen direnean izango dira. KARKARA

2013rako prest izan nahi ditu bungalowak kanpinean Udalak

Aurtengo neguan egin dute kanpineko berrikuntza lanen lehen zatia. Azpiegiturak berriitu dituzte, orokorrean, eta datorren negurako utzi dituzte gainontzekoak.

Udal kanpinak berriitu beharra zuela ikusi eta bungalowak –kanpinetan izaten diren alokatzeko etxetxoak– jartzeko erabakia hartu zuten Turismo Batzordean. Gauzak horrela, teknikarien azterketen ondoren, kanpineko zein eremutan jarri erabaki berri dute Udaleko ordezkariak. Bi eremuren artean zailtzak izan eta gero, hondartzatik gertuen dagoen tokian jartzeko erabakia hartu du Orioko Udalak. Bigarren aukera, San Juango ermitaren azpiko txokoa zen baina, behin halako inbertsio bat egin behar izanda, toki egokiagoa iruditu zaie bestea.

Bezero finakoak kexu

Aldaketa hori dela eta, Miriam Uranga Turismo Batzordeko burua kanpineko bezero finakoekin bildu zen joan den apirilaren 25ean. *Bilera izan aurretik hainbat kexu eta zurrumurru zabaldu ziren herrian eta bezero horiek kanpinetik bota nahi ditugula esaten ibili dira batzuk.*

Hori ez da egia, eta egoera berria zein izango den eta nolako baldintzak izango dituzten azaldu nahi izan genien bezeroei, esan digu Miriam Urangak.

Bezerogehienek urte asko daramatzate Orion, 80ko hamarkadan egindako lanen ondorioz, kanpina 400 partzela izatera iritsi baitzen, eta horietatik 125 bezero finakoek bete zituzten. Hamarkada bukaeran, orde, Eusko Jaurlaritzako Turismo Sailak kanpinetarako dekretu berri bat onartu zuen eta ordutik aurrera bezero finakoak mugatuta zituen Orioko kanpinak. Gero, 2003-2007 urteen artean, hondartzako obrak medio, 178 partzela besterik ez eskaintzeraino jaitsi zen kanpina. Gaur egun egoera horretan dago eta %30a, 53 partzela, betetzen dituzte betiko bezeroek.

Orain egingo den aldaketarekin ez dituzte kanpinetik bidaliko, baizik eta gaur egun dauden eremutik kanpineko beste eremu batetara mugitu beharko dituzte beren karabanak eta urtea bukatu baino

lehen. Behin mugituta, orain arteko baldintza berekin jarraitzeko aukera izango dute kanpineko bezeroek: hori bai, aurtengo Turismo Sailak onartuko duen dekretu berriaren arauak errespetatuz; esaterako, sukalde finakoak kenduz.

Urteasko Orion

Saminduta azaldu ziren bileran kanpineko bezero finakoak. Aldaketarekin beren karabanak eta hautsiko ote diren beldur dira.

Urangak esan duenez, *ulertzekoa da azaltzen duten haserrea eta tristura. Guri ere ez zaigu gustatzen halako egoeretara iristea, baina herriaren onena bilatu behar dugu. Badakigu kanpineko bezero horiek sustraiak bota dituztela Orion, 40 urtez gozatu dutela beren partzelaz, baina bungalowak beharrezkoak dira gurea bezalako kanpin batean, urte osoan herrira jendea erakarri nahi badugu. Beti zeruari begira ibiltzen gara, eta bungalowek kanpinari onura ekarriko diote.*

Bezeroek ordainketa garaia izaten dute orain kanpinean eta, baldintza berriak onartuko ez dituztenei, uda bukaeran kontratua eteteko aukera emango zaie.

Ia 300 trikitilari eta pandero jotzaile arituko dira larunbateko topaketan

Euskal Herriko 14 musika eskolatatik etorriko dira ikasle eta irakasleak kalejiran eta kontzertuan trikitixa doinuak ekartzera, Olatu Talka ekimenaren barruan.

Lau urte barru Donostia izango da Kultur Hiriburua eta, maiatzean, Olatu Talka jaialdia abian jarri, eta Donostiatik hainbat herritara zabalduko dira ekitaldiak. Oriora ere iritsiko da maiatzaren 12an; hain zuzen ere, Danbolin Musika Eskolak antolatutako Trikitixa eta Pandero topaketarekin.

Gipuzkoako 13 musika eskolak eta Arabako batek hartu dute parte; gutzira,

trikitixa eta pandero ia 300 ikasle eta irakasle izango dira topaketan.

Sakabi eta Egañazpi

Goizean denak elkartu eta entseatu ondoren, trikitixa doinuekin alaituko dituzte herriko kaleak. Gero, 13:00etan, kontzertua egingo dute Ikastola aurreko plazan. Sei abesti joko dituzte: Faustino Azpiazu *Sakabi* eta Joxe Mari Urkola

Egañazpi trikitilarien hiru pieza, trikitilari entzatzat eredu direnak gogoan izateko; fandango, arin-arin eta rantxera banarekin osatuko dute emanaldia.

EGITARAUA

09:45 Ikastola aurreko plazan elkartu.

10:00-11:00 Entsegua.

11:00-11:30 Hamaiketako.

11:30-12:30 Kalejira, Orioko kaleetan barrena.

13:00 Kontzertua, Ikastola aurreko plazan. Eguraldi txarra eginez gero, kiroldegian.



Danbolin Musika Eskolako trikitixa eta pandero jotzaileak. KARKARA

LABUR

Musika

Kantu jira igandean

Egungo abesbatzaren 15. urteurrena dela eta, kantu jira izango da Orioko kaleetan igandean, maiatzaren 13an. Ahalik eta jende gehien denek elkarrekin abesatea da asmoa eta horretarako kantu ezagunak aukeratu dituzte. Abesbatzarekin kantatzeko prest daudenei 12:00etan Danbolin Musika eskolara inguratzeko dei egin dute Egungentikoek.

Hezkuntza

Pintxo txikiteoa ostiraletan

Aste Santura bitartean, ostegunetan egin dute orain arte herriko tabernariak Udalarekin batera antolatutako pintxo txikiteoa, baina aurrerantzean ostiraletan izango da. Bi aukera izango dira: taberna gehienetan pintxoak eta urteko ardoa, sargardoa, zurittoa edo muztioa 1,50 euroan; besteetan, pintxoak 0,50 euroan edozein edarirekin. Honako tabernekin hartuko dute parte ekimen horretan: Antilla, Arkaitz, Aterpe, Bordatxo, Gabon, Gure Txoko, Koasta, Kolon Txiki, Salatxo, Sarasua eta Tragoxka.

Aisialdia

Udaleku irekietako izena ematea

Udaleku irekiak antolatzen ari da Txurru-muski, eta matrikulazio-epaia zabalik dago. Maiatzaren 22a baino lehen Euskadiko Kutxan sartu behar da dirua: uztaileko udalekuetarako 70 euro, eta abuztu-koetarako 40. Begiraleentzat ere hori da izena emateko azken eguna. Ondoren, maiatzaren 25ean, 19:00etan, Kultur Etxean bilera izango da eta honako dokumentuak eraman behar dira: izen-emate orria, osasun txartelaren kopia, diru-sarreraren ziurtagiria, etxera bakarrik joateko eta argazkiak ateratzeko baimena.

30 mahai igandeko artisautza azokan

Herriko Plazan, elizako bi atarietan eta Pilliku plazan izango dira jarrita mahaiak. Jakiak, egurrezko eta larruzko lanak, otarrak, zeramika, bitxiak, pilotak, kandelak eta arropak izango dira salgai.



Antxon Mendizabalen egurrezko lanak ikusi ahal izango dira Herriko Plazan. KARKARA

Maiatzeko bigarren asteburua ekitaldiz beteta dator Orion. Besteak beste, artisautza azoka antolatu dute iganderako, maiatzaren 13rako.

30 eskulangiletik gora izango dira lanak ikusgai eta salgai jarriko dituztenak eta askotariko gauzak izango dira azokan: janaria –eztia, gazta, erroskillak, taloak, hortxata, ogia, txorizoa, solomoa eta ahate produktuak–, egurrez eta larruz egindako lanak, otarrak, bitxiak, zeramika, pilotak, xaboiak, kremak, kandelak, arropak... Orioko artisauek ere hartuko dute parte eta, horrelako azoketan ohikoa duten bezala, Farfara taldekoek ere bigarren eskuko liburuekin jarriko dute mahaia.

Egun osoz

Postuak herriko hainbat txokotan jarriko dituzte: Herriko Plazan, elizako zimitorioan eta Pillikun. Azken horretan, hain zuzen ere, Goiko Kalekoek taberna jarriko dute eta azoka ikusi bitartean jateko eta edateko aukera izango da.

Goiz eta arratsaldez izango da azoka 11:00etatik 14:00etara eta, eguerdian etena egin ondoren, 17:00etatik 20:00etara zabalduko dituzte berriz dendak.

Belaunaldien arteko elkartrukea izango da maiatzaren 26an

Matia institutu gerontologikoak, oriotarrekin batean, egun berezia antolatu du belaunaldien arteko harremana lantzeko eta kultura ekitaldiak izango dira goizez.

Ingemak –Matia institutu gerontologikoa– Orio herriarekin batera, belaunaldi arteko proiektuaren baitan, Generazio-arteke Eguna antolatu du maiatzaren 26rako. Egun horren helburua herritarren partaidetza bultzatzea eta belaunaldien arteko harremana lantzea da. *Proiektu honekin pertsona guztien bizi kalitatea hobetu eta Orio denontzako atsegina izatea lortu nahi dugu, herritar guztion partaidetzarekin, argi baitago aktiboki gizaratean parte hartzea bizi kalitate onaren adierazle dela*, azaldu dute Ingemako antolatzaileek.

Eguneko egitaraua 11:00etan hasiko da trikitixa eta txistularien doinuetara herriko kaleetan egingo diren dantzekin. Mandala tailerra izango da plazan 12:00etan eta, 12:30ean, bi belaunalditako bertsolariak arituko dira han: Egoitz Eizaguirre eta Patxi Etxeberria.

Antolatzaileek egun horretarako propio prestatutako kamisetak jarriko dituzte salgai 3 eurotan Itziar Kirolak dendan eta Turismo bulegoan.

Erakusketak

Gainera, maiatzean ekintza gehiago izango da belaunaldi arteko proiektuan. Elizan, garai bateko jaunartzeen inguruko erakusketa egongo da maiatzaren 12tik 20ra. Bestalde, materiala biltzen ari dira lehengo eskolari buruzko erakusketarako.

Ekainean, 23an, goizez, saskibaloia, ibilaldia eta aerobika izango dira eta 30eko azokan talo postua, aurretik, ekainaren leian eta 15ean 18:00etatik 20:00etara, izandako ikastaroan ikasitakoa erakusteko. Izena emateko 646 098 753 telefono zenbakira deitu edo gara-zi.elortza@ingema.es helbidera idatzi.



Bi belaunaldikoek elkarrekin lanean. MATIA



KARKARA

“Maila goreneko produktua eskaintzen dugu, baina merkeago”

Urtzi Garmendia

Nine bodyboards enpresako bazkidea

Ume-umetatik bizi da *kortxoari* lotuta Urtzi Garmendia. Orioko hondartzan surfaren modalitate honetan ia bakarra izatetik enpresa baten bazkide izatera iritsi da, *bodyboard*-ari lotuta daramatzen 20 urte hauetan.

IKER GURRUTXAGA

Kutxako gaztetxoaren elkarteko kamiseta, hiru galtzerdi pare eta urpekarien *fura* aletak jantzi, Itziar Kirolak dendan erositako giladun *paipo* berde eta horia hartu eta nola uretaratzen zen gogoan du oraindik Urtzi Garmendiak. Dozena bat urte baino gutxiago zituen mutiko haren oroitzapen gozoetatik ekin diogu elkarriketari.

Nola izan zen zure hasiera bodyboardarekin?

Bada, dozena bat urterekin edo hasi nintzen kirol horretan. Gerora, batzuk zutik

jartzen hasi ziren, surfeko oholen gainean, baina nik etzanda jarraitzea erabaki nuen. Nahiko ondo aritu nintzen hasieratik eta, pixkanaka, dirua aurrezten-eta joan nintzen, material berria erosteko. **Baina maila polita lortzera iritsi zinen, ezta?**

Beno, egia da 1998ko inguruan maila nahikoa ona izatea lortu nuela eta, gero, beheraka joan naizen arren, nahikoa ongi moldatu naizela. Duela pare bat urte, esaterako, Maldivetara (Indiako ozeanoa) joan nintzen eta garai hartan ezagutu nuen *Nine bodyboards* enpresa.

Nolakoa izan zen lehen hartu-eman?

Neurrira egindako *bodyboard*-a eraman nuen Maldivetara. Bi eraman nituen, aurretik neukana eta *Nine* neurrira egin zidana. Behin berria probatuta, askoz gusturago ibili nintzen, eta lehendik neukana albo batera utzi nuen.

“Marka handiekin gertatzen ez den bezala, eskuz eta banaka egiten dira *Nine* bodyboardak. Halako bi ez dira sekula izango berdinak”

Gero, enpresa hartu zenuen.

Pare bat hilabete dira hori gertatu zela. Maldivetara egin nuen bidaiak Cadizko Raul Reguera ezagutzeko aukera eman zidan –berak sortu zuen *Nine* enpresa, hasiera batean-. Utzi egin behar zuela esan zidan, denbora asko kentzen ziola-eta. Hari deitu eta markarekin nik jarraituko nuela esan nion. Esku aldaketa egin eta lanean gogor nabil orain. Arkaitz Paz dut bazkide, anaia bezala da niretzat Arkaitz. Txikitatik batera egin dugu kirol hau, bera kanpinera etortzen zen udan, eta hortik egin ginen lagun.

Zein motako lana egiten duzue?

Batetik, www.ninebodyboards.com web orrialdea kudeatzen dugu. Orrialdea euskaratu egingo dugu, lehenik. Aurreko jabea ez zen bertakoa, baina egun Gipuzkoan aritzen garenez, eta materiala Euskal Herrian fabrikatzen denez, gutxieneko lana da hori. Bestetik, jendearen eskariei erantzuten diegu. Hiru *bodyboard* ditugu aukeran eta, behin eskaera jasota, *shaper*-ari esaten diogu zer den bezeroak eskatu duena. Azkenik, surf eta kirol dendeekin hartu-emanetan gabiltza, gure produktua leku fisiko batean eduki ahal izateko jendearentzat.

Euskal Herrian egiten duzuela diozu.

Non egiten dire *Nine* bodyboardak?

Bizkaian egiten dira, Mungian. Estatuko *shaper* bakarrenetakoak bertan du fabrika eta, gure iritziz, oso ona da. Garai batean *Genesis* markako *bodyboard*ak berak egindakoak dira.

Arkaitz eta biok bodyboardean ibiltzen zarete; zuek probatuko dituzue, ezta?

Bai eta ez. Guk probatzen ditugu, baina taldean bi *rider* profesional ditugu. Bi sopoloztar dira: David Pérez eta Alex Sebastián. Biak profesionalak dira eta Pérez, gainera, munduko txapeldun izana. Orain, hirugarren fitxaketa egin dugu, Kanaria uharteetako *rider* bat.

Halako mailako jendearentzat material ona beharko da, ezta?

Eta hori da eskaintzen duguna. Merkatuan dagoen materialik onenarekin egiten dira gure oholak. Horrez gain, marka

handiek ez bezala, eskuz eta banaka egiten dira *Nine bodyboard*-ak. Halako bi ez dira sekula berdinak izango.

Garestiak ere izango dira, hortaz.

Ez dira merkeak, baina bai marka handiek saltzen dituztenak baino merkeagoak. Eskuz egiten dira eta akaberetan eta ezberdintasun horiek antzematen diren arren –zintotasunez diot–, marka ezagunen pareko produktua saltzen dugu. Hiru modelo ditugu, eta hirurak prezio berean saltzen ditugu, 198 eurotan –bidalketa gastuak barne–.

Merkeagoak aurki daitezke merkatuan.

Bai, hori ere egia da, baina ez gama altukoak. Gureak kalitate gorenekoak dira, eta maila bera duten produktuek 250 eurotik gora balio dezakete, batzuk 300 euro baino gehiago ere bai. Gure produktua ez da noizean behin erabiliko duen pertsona batentzako pentsatuta egin, gure produktua maiztasun jakin batekin eta exijentzia batzuk dituzten kirolarientzat pentsatuta egin dago. Nik ere nire *Nine* ohola izan aurretik, zailtzak izan nituen, baina behin probatu eta gero...

Behin probatu eta gero... zer?

Bada, zalantza guztiak argitu nituela. Bertako produktua izanagatik, ez du zertan txarragoa izan. Jendeari mezu hori eman nahi diot. Australia, Brasil, Hawaii... lurralde horietako marka handiek Indonesian egiten dituzte oholak, serieko fabrikazioan, eta gureak baino

askoz ere mimo gutxiagorekin. Horiek guztiak gure errespetua merezi dute, dudarik gabe, baina gu ez gara gutxiago: material hobereak ditugu, *shaper* bikaina, olatuak, *rider*-ak eta ezagutza. Hori guztia batzen dugu gure oholetan. Marka handiekin konparatuta, oso bestelako trataera ematen diogu produktuari.

Modeloak zertan ezberdintzen dira?

Neurrietan dira ezberdin. Bat askatasun osoz ibiltzeko errazagoa dena da, baina oreka errazago galdu dezakezuna: oso *urduria* dela esan genezake. Bestea erabilera gehiagotarako, balio anitzekoa da. Eta hirugarrena hasiberrientzat egokiagoa, hiruretan zabalena da eta olatuetan *seguruago* joaten da.

Webean saltzeak izango ditu trabak, ezta?

Askori kostatu egiten zaio produktua fisikoki ikusi gabe erostea, eta ulertzen dut. Horregatik ari gara Pukas edo Itziar Kirolak bezalako dendeekin hizketan, modelo bakoitzetik bana bertan uzteko. Bestela, produktuarekin interesa duenak info@ninebodyboards.com helbidera idatzi, eta gurekin harremanetan jartzearekin nahikoa du. Herritarrei aurrez aurre erakutsiko dizkiegu, eta ingurukoak badira, bada, gerturatuko ginasteke haiengana ere. Orion, nireaz gain, Unai Zubizarretak ere –iazko *bodyboard* txapelkunak– badu berea. Beraz, Orioko Antilla hondartzan ere, olatuen artean edo ur ertzean, ikusi daiteke *Nine* bat.

LABUR

Futbola

Jaime Coladok taldea utziko du

Denboraldia bukatzeko partida bakarra falta zaio Orioko Futbol Taldeko senior gizonezkoen taldeari. Azken partida etxean Lagun Onaken kontra 0-1 galdu zuten, baina partidaren aurretik eman zuen albistea Jaime Coladok. Hainbat urte eta gero, berriro ere taldea uzteko erabakia hartu du entrenatzaile oriotarrak. Aurten taldea sailkapenaren erdialdean ibili da urte guztian zailtasun handirik gabe, baina, bere kabuz, taldetik joatea erabaki du Coladok.

Sofbola

Kirolgi OBB, lehen itzuliko liderra

Maiatzaren 6an jokatu zituen Kirolgi OBB taldeak lehen itzuliko azken partidak Donostiako Atlético San Sebastián taldearen aurka. Bi partidak irabazi zituzten Patxi Arnalen neskek eta, horren ondorioz, Ohorezko Mailako lider dira oriotarrak lehen itzuliaren bukaeran. Kadete neskek, bestalde, Espainiako Sofbol Txapelketa jokatu zuten maiatzaren 4tik 6ra Rivas Vaciamadriden. Aurkari gogorrek egokitu zitzaizkien hasieratik eta partida guztiak galduta 8. izan ziren Orioko neskek. Dena dela, lortutako esperientziarekin eta egindako jokoarekin gustura agertu dira OBBko arduradunak.

Squasha

Alex Agirre txapelkun Zarautzen

Maiatzaren 5ean Zarauzko kiroldegian alebin-infantil mailako 3. squash txapelketa jokatu zen. Alex Agirre oriotarrak izan zen bertan, alebinetako beste 22 partaiderekin batera. Goizean, bi taldetan banatu ondoren, hamar partida jokatu zituen Agirrek eta, partida guztiak irabazita, final erditarako sailkatu zen. Finaleraino iritsi eta Iker Alkorta zarautzarraren aurka jokatu zuen. Finalan Alex Agirrek 2 set irabazi zituen eta bat galdu: 11-8, 4-11 eta 11-7. Gauzak horrela, Agirre oriotarrak irabazi zuen txapelketa.



RAMIRO
argazkiak

www.taloramiro.com
taloramiro@taloramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48

HAIZE BERRI
taldeko jarduera ludikoak

Plater kumbratuek, belata, hasiergoak, ruziak, agurak...
eta etxera eramateko berkitza!

Edozein taldearekin batera | 943 83 10 48 | 1. eta 2. solairuak

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremakak

feruranga@euskalnet.net
Telefonoa: 943 83 10 36 Euzko Gudar. 1

Zergatik etortzen zarete hain urrutitik landare berezien azokan saltzera?

Aurten 48 enpresa etorri dira urtero antolatzen den ferian parte hartzera. Bidaia luzeenak egin dituztenekin elkartu gara azokaren erakargarritasunaz hitz egiteko.

PAT COWIE

Loder Van Dorslaer

Viveros Botánica y Flores de Lyres
800 kilometroko bidaia Fisterratik (Galizia)



Sei lagun etortzen gara: emaztea eta biok eta lau semeak. Autoz etortzen garenok kolpe batez egiten dugu bidaia eta kamioiaz datozenak, bi egunetan. Aurreneko eta hirugarren azokara ez ginen etorri, baina beste guztietara, bai. Bi mintegi ditugu, baina aurten da banbuak ekarri ditugun lehenengo aldia. Lehen beste batek ekartzen zituen eta hemen ez diogu bata besteari konpetentzia egiten, baina aurten ez da etorri eta aukera aprobetxatu dugu gure bi mintegien landareak ekartzeko, hau da, banbuak eta Australia eta Zeelanda Berriko zuhaixkak.

Hau da, urte osoan, publikoarekin harreman zuzena dugun momentu bakarra, handizkako salmenta egiten dugu eta. Baina asko betetzen nau hemen egoteak, eta mutilei ondo datorkie azokan parte hartzea eta lekua eta jendea ezagutzea. Harritzen nauena da zenbat erosle diren jantziak landare kontuetan, eta ez dakitenek galdera egokiak egiten dituzte. Gustatzen zait jakitea aurreko urtean eramandako landareak nola dauden, erosleen komentarioak eta iritziak jasotzea... horrela nik ere ikasi egiten dut. Eguneroko bizitzan ez dut aukera hori. Landarekultura nabarmena da hemen, jendeak interes handia erakusten du, eta etortzen denak landareak maite ditu.

Baina garbi dago, arrazoi ekonomikoengatik ez gara etortzen, normalean kamioiakadak saltzen ditugu astero! Txangoa da, hezitzailea, eta ondo pasatzen dugu.



Rein eta Mark Bulk

Rein en Mark Bulk broers
1.400 kilometroko bidaia Boskoopetik (Holanda)

Egia esateko, lan gehiegi dugu garai honetan hona etortzeko, baina lorezain nagusia den Jose Armandoz ezagutu nuen orain dela 25 urte Eskoziako mintegi batean eta, batetik, gure *urteurrena* delako eta, bestetik, leku eta azoka zoragarria delako etorri gara bi anaiok. Bi zatitan banatzen dugu bidaia eta, ez badirudi ere, oporralditxo bezala hartzen dugu!

Larunbatean landareei buruz asko dakitenekin topatzen gara, bertakoak ere bai, ez profesionalak soilik. Duten ezagutzak harritzen gaitu. Eta igandeetan galdera asko egiten dituzten bezeroak izaten dira.

Arazoak izaten ditugu hizkuntzekin: gureaz aparte, ingelesez bakarrik moldatzen gara ondo eta, hemengoek, eta batez ere adin batetik gorakoek, gaztelania, euskara edo, batzuetan, frantsesez egiten digute. Beraz, hemengo lorategian aritzen diren Jose eta Ikerren laguntza eskertzen dugu, ondoko postuan izan ditugu beti eta.

Gure hirugarren aldia da eta, aurten, egun bat gehiago geldituko gara lorategia bisitatzeko, normalean denborarik ez da izaten eta. Familiaren mintegia dugu, aitzak orain dela 54 urte sortutakoa, eta mintegiko lanetan parte hartzen jarraitzen du, nahiz eta jubilatua egon.



Alonso Navarro eta François Gautier
Plantaromed
1.000 km
Malagatik

Penintsulan antolatzen den bildumako landareen azokarik handiena delako etortzen gara hazten ditugun landareak saltzeko, eta ezagutu edo izan ez ditugunak erosteko. Horretaz aparte, oso gustura trukutzen ditugu iritziak eta aholkuak etorritako beste mintegiko guztiekin.

Larunbatean, batez ere, espezialistak eta zer erosi garbi dakitenak etortzen dira eta, igandean, publiko arrunta, landareak ikusteko edo gustuko zerbait erosteko etortzen dena. Azken horiek aholku gehiago eskatzen dute. Denak ongietorriak dira, jakina!

Hirugarren aldia dugu aurtengoa eta gehiago jarri behar izan dugu gure poltsikotik, krisia dela eta. Hirurok furgonetan etorri gara eta denera lau gau eman ditugu etxetik kanpo, bi bidaian eta bi hemen.

Pedro Minto

Raziel
1.470 km
Padovatik (Italia)



Bakarrik egin dut bidaia 20 orduan. Gure enpresaren bosgarren aldia da Aiako azokan.

Gustukoa dut, oso azoka profesionala delako, Italian ez bezala. Parte hartzaile guztiak espezialistak dira, eta ez salerosketan landareak mugitzen dituzten horietakoak. Antolatzaileek errespetu osoz antolatzen dute feria. Ez dute landare mota bateko ordezkari bana baino gehiago ekartzen, beraz, ez gara konpetentzian erortzen.

Erostera etortzen diren profesionalekin gustura hitz egiten dut, eta profesionalak ez direnekin ere gustura betetzen dut nire lana: landarea eta zaintzeko pausoei buruz pazientziaz esplikatu.

Horrez gain, internet bidez saldu nahi dugu eta hemengo merkatua neurtu nahi dugu.



Garai batean baserrian egiten ziren lanen erakustaldia egingo dute Aian. KARKARA

Baserriko ofizioen erakustaldia eta herri kirolak Asentzio ferian

Maiatzaren 20an baserriko gaien salmenta eta ofizioen erakusketa izango dira goizean; eguerdian, produktuen dastaketa eta, arratsaldean, aizkora txapelketa eta erromeria.

Asentzio eguna gerturatzen ari da eta jai eta baserri giroak bat egingo duten hainbat ekitaldi antolatzen hasi dira Aian.

Maiatzaren 20an, larunbatarekin, egingo dituzte ospakizunak. Goizean, 10:00etatik 14:00etara bitartean, azoka izango da. Aparkalekuan, barazkiak, fruta, gazta, ezti, ogia, gozoak, loreak, ardoa eta baserriko beste hainbat produktu, erakutsi ez ezik, saldu ere egingo dituzte. Baserriko lanabesak ere izango dira salgai eta artisauek ere beren lanak jarriko dituzte; horiek plazan. Animalien erakusketa, bestalde, kirolgunean izango da.

Baserriko ofizioak

Azoka ez ezik bestelakorik ere izango da goizean barrena, baserriko ofizioen erakustaldia egingo baitute. 11:00ak aldera, ardi ile mozketak eta artilearen beste erabilerekin lotutakoa egingo dute herriko hainbat emakumek plaza inguruan. Eskola inguruko zelaietan, 12:00ak inguruan, soroak prestatzeko laiekin egiten

zen lanaren erakustaldia egingo du gizonzkoek.

Bestalde, eguerdian euskal produktua dastatzeko aukera izango da. Batek Eusko Labela duten produktuen pintxoak izango dira jateko eta, bestetik, horiei bultza egiteko edariak egongo dira aukeran herriko ekoizleek eskainita, txakolina eta sagardoa, hain zuzen ere.

Aizkolariak

Arratsaldean, bestalde, Gipuzkoako 2. mailako aizkora txapelketako kanporaketa jokatu da frontoian, 17:30ean. Iñaki Agirre, Jabier Aranbarri *Elorriaga*, Xabier Bergara, Mikel Larrañaga, Aratz Mugerza, Unai Otaño, Jesus Mari Etxebeste eta Aitor Urteaga arituko dira lehian eta 54 ontzako bina enbor eta 60 ontzako beste bina moztu beharko dituzte.

Aizkolarien ondoren, plazan, erromeria izango da Laja II eta Unai Narbaiza trikitalariekin.

LABUR

Mendia

Ernio magaleko ibilaldia

Maiatzaren 13an, igandearrekin, Erniopeko zortzi herrien arteko 8. ibilaldia izango da. Larraulen hasi eta amaituko da ibilbide luzea eta, tartean, Asteasu, Aia, Errezil, Bidegoian, Albiztur, Hernialde eta Alkizatik pasatuko dira ibiltariak. Ibilaldi horren helburua da herri horiek bidez bide eta basoz baso, gure aurrekoek oinez egiten zuten bezala erakustea eta ezagutaraztea parte hartzaile guztiei. Ibilbide luzea egingo dutenak 06:00etan abiatuko dira Asteasutik eta 07:30ak eta 09:00ak bitartean iritsiko dira Aiako kaskora. Aiara iristeko Ernio eta Gazume alboratu aurrean, Bulano baserrira igo, gero, eta Andatzara jaitsiko dira, Aristerrazuko plazara, eta handik Aiako herri kaskora igoko dira. Aian egonalditxoa egin -jan-edana aukeran izango da- eta gogotik heldu beharko diote Ernio-txikiko igoera gogorrari. Ibilaldian parte hartzeko izena eman nahi dutenek, sarean, www.erniozaleak.org web orrian dute horretarako aukera, baita informazio gehiago jasotzekoa ere. Besteak beste, Aiatik pasako ez den ibilbide laburraren berri ere ematen dute webgunean horretan. Hala ere, ibilaldiko egunean, hasi baino ordu bate lehenagora arte aukera egongo da izena emateko irteera gunean bertan.

Kirola

Auto igoera

Aiako 5. Auto Igoeran, Gipuzkoako eta Euskadiko mendiko txapelketa jokatu da maiatzaren 26an, larunbatean. 10:00etatik 12:00etara egiaztatze txanda izango da eta, ondoren, 15:30etik aurrera, entrenamendua eta gero txanda ofiziala. Hori dela-eta Aiako errepide nagusiko zirkulazioa eten egingo dute egun horretan 14:00etatik 18:00etara bitartean.

Zozketa

Aiako produktu sorta

Apirilaren 29an, Aiako produktuekin osatutako sortaren zozketa egin zuten Landare Berezien Azokako bisitarien artean. Zerbaki saritua 0913a izan da -igandean saldu zen sarrera hori-. Zerbakiaren jabeak Pagoetako Parke Naturaleko 943 83 53 89 telefono zenbakira deitu beharko du, saria eskuratzeko. Produktu sorta jasotzeko azken eguna maiatzaren 15a izango da.

Berdeguneko lore beltzak

Jardinetako xoxoei begira sarritan egon izan naiz, azken urte hauetan. Eta zuetako asko ere egongo zineten noski. Gaur egun, edozein urte sasoi-tan ikusten dira xoxoak, gure kaleetako berdeguneetan.

Halako begirune bat ere badiegu haiei: hain izua izanik, gizakiongandik hain gertu dabilzalako. Gainera, goizean goiz, eguna argitu baino lehen norabait mugitu beharra dugun bakoitzean, eta etxetik irteterakoan, atarian egingo dugu topo haiekin. Berdeguneko zuhaixkaren baten ondoan edo azpian ariko da aztarka, ea jateko zerbait aurkitzen duen, beste inork baino lehen. Isilik eta bizkor, begiak garbi, inolako makarririk gabe.

Katu ehiztaria ere, inork baino hobeto zainduko du. Baina egunsenti iluntxoan gizakia bi metrora pasa arren, ez du ihes egiteko presarik izango. Horrek adierazten du fio dela gizakiarekin. Txantxan-gorria hainbeste ez, baina pixka bat bai. Eta pozten gara.

Egunean zehar, etxe inguruko belardian bezero beltz hori ikusi dudanean, leihotik bota izan diot ogi koxkorren bat edo sagar puskaren bat. Baina alferrika-kolana egiten dut. Bera mugitzerako eramaten dituzte, batere lotsarik ez duten betiko txolarre motz horiek.

Behin apirilaz gero, berriz, binaka ikusiko ditugu gure xoxoak. Beren maitaleak badituztela erakutsiko digute. Beren kabi-egite lanak dituztela, edonor ohar-tzen da.

Baina ez diegu berehalakoan antze-mango non duten beren altxorra. Badakite nola nahastu ere gure gisakoak.

—*Hara, zuhaixka horretara eramaten dute zerbait...*

Kar, kar, kar! Zerbait jarriko dute, zotz mordo bat. Baina benetako kabia, beste lekuren batean egingo dute.

Arraio-arraioak, badute bai sena, handia eta zuzena.

Maiatzaren hasieran ikusi ohi ditugu kabiatik eroritako xoxokumeak saltoka, zuhaixka bazterretatik aurrera. Orduantxe ikusten ditugu baita ere xoxo aita-amak, estu eta larri.

Eman diezaiegun bakea. Gure herrietako zelaietan ugaritu daitezela, lore beltz polit horiek. Haiek bakarrik baititugu, lorategietako lore beltzak.



Txokoak eta jendea Andatzatik Txurru mendira

Maiatzaren 5ean, larunbatean, 10:30ean Andatzatik abiatu eta Txurru mendira igoz goiz pasa polita egin zuten Andatza auzoko herri eskolako umeez eta gurasoek. *Eskola txikiak, herri eta auzo txikiak, bizirik!* leloa aldarrikatu zuten gailurrean eskolan ez ezik aisialdian ere elkarrekin gozaten dutela erakutsiz.



12. Etxaiz, bi baserri batean

Igeldo alderako bidean aurrera jo eta eskuinetara doan porlanezko pistan barrena, Etxaizerrekaren sorburuaren gaineko lepora, Etxaizarra baserriira, iristen da. Bi etxebizitza daude han, Etxaizarra eta Etxaiz. Etxaizarra, 1981ean erre zen arte, bi etxe biki ziren: oinplano laukizuzena, bi isuriko teilatua, bi pisu eta ganbara zituzten. Etxaizek egurrezko egiturari eutsi dio –Kabilazuloren bat ere ikus daiteke–. Paretak

harlangaitzezkoak dira eta guztiz kareztatuak daude. Etxaizarra, inolako interes arkitektonikorik erakusten ez duen baserri moderno bat da orain.

Etxaizarra XVII. mendean eraiki eta XIX. mende hasieran banatu zen bi bizitzatan. Etxaizekoen ondorengoak dira gaur egun haren jabe. Etxaizarra beste sendi baten –beti beraren– eskutan egon izan da. Hala ere, azken Karlistaldian, alokatuta zegoela, jasan zituen baserri horrek harrapaketak, lursailetakoa hesietako harriak eramane baitzituzten.

Garai batean, ohikoak ziren landa-eskolak, eta 1938an ere egon zen bat Etxaizaran inguruetakoa umeentzat. Eskolarekin ere izan zen arazorik, ordea. 1952an, Aizperroko eskolako irakasleak

Etxaizarrekoa legez kanpo egina zela salatu eta berehala itxi ezearan gobernadore zibilarengana joko zuela egin ziren mehatxu, baina kasurik egin ez eta eskolak martxan jarraitu zuen.

Etxaizen, garai batean, esnetarako eta haragitarako behiak hazten zituzten; baina orain, etxerako baratzea dute eta sagardoa ere egiten dute. Bizi ez dira han bizi, aurrean eraikitako txaletean baizik.

Etxaizarra, aldiz, Orion baserri lanei eusten dien baserri gutxienetakoa bat da. Izan ere, esnetarako behiak gobernatzen dituzte eta baita etxerako baratzea landu ere.

[ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA: ZEHAZTEN]





Motako eta Itxaspeko arrokek esanak

Entzun al duzue Oteiza eta Itxaspe bideko arroken kontua? Hutsunea, bere obraren inspirazioa, han aurkitu omen zuen. Baina arrokek zulatu eta barrura eginez joko bagenu, hutsune gutxi topatuko genuke. Itsaslabarreko arroka-kapek hojaldre tarta erraldoia osatzen dute. Hona Igeldoarria sortu zenekoa.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: HERRIO NATURTALDEA

Itxaspeko arrokek berriketan hasi eta kontatzeko dezente dutela esango balizute, erokeria galanta irudituko al litzaizuke? Gu, gizakiak gara eta bizidunak. Horrexegatik beste bizidunak, animaliak, landareak, onddoak... gertuago sentitzen ditugu. Haien eboluzioa ikusi egiten dugu, haiek esaten digutena entzuteko gai gara. Az-

ken batean, errazago ulertzen ditugu antzekotasun gehiago dugulako: denak bizidunak gara eta denbora tarte berdintsuan bizi gara.

Gure denbora unitatea edo bizitza beste bizidunen parekoa da eta beren aldaketak ikusteko gai gara. Familia berekoak bagina bezala da. Harriak, ordea, bizigabeak dira, inerteak. Gure bizitzarekin konparatuz oso mantso sortzen eta eraldatzen dira. Pentsa, harriei buruzko azalpenak ematean denbora unitatea

milioi bat urtekoa izaten da. Beraz, harriei gertatzen zaizkien aldaketak ikustea, zaila izan beharko guretzat!

Baina arroken hizkuntza zein den jakinda, haiei entzuten ikasita, asko uler dezakegu. Horrexegatik erreportaje hau osatzeko laguntza behar izan dugu. Eta nor hobe horretarako Orioko arrokek esaten dutena ondo ulertzen duena baino, Luismi Agirrezabala geologoa. Luismi izango da gure arroken itzultzaile propioa. Goazen bada gure harriek zer dioten entzutera!

Osagaiak

Hareharria, tupa eta tupa, hareharri. Labarra osatzen dugu eta binaka gabiltza. Tarta batean bata hojaldre orria eta beste krema. Baina arroka mota ezberdinak gara eta Gipuzkoako itsaslabar osoan txandan-txandan azaltzen gara. Txandaketa horri deitzen diote geologiek flysch-a. Geruzetan sortu ginen sedimentuzko gorputzak gara. Aurrena erriak eta itsasoak gero ekarritako materialekin osatu ginen, horizontalean eta itsaspean, etzanda. Gaur egun, berriz, ez gara horizontalean ageri, okertuta bai-kaude.

Itxaspe, Kukuarri, Igeldo edo Jaizkibel osoan hala ageri gara, okertuta. Itsasora irristan, pendiza ikaragarriak osatuz. Baina nola okertu ginen? Gu sortu ondoren indarrez zapaldu gintuzten. Horrela, jatorrizko geruza horizontal ginenak deformatu, okertu eta altxa egin ginen gaur egungo posizioa ekarri arte. Itsaso sakonetik aitera ateratu gintuzten, lehorrera. Eta hori noiz gertatu zen? Bada, Pirinioak sortu zirenean. Iberiar penintsula eta Europaren artean talka indar izugarriak egon zirenean. Gorputz gogor eta zurrunak ondo tolestu eta zimurtzerainoko indarrak.

Nola?

Gaur egun arroka gogorrik ikusten gaituzuenak, eratu ginenean, hondar eta lokatz soltea besterik ez ginen. Orain dela 45 milioi urte (m.u.) Pirinioetatik, Pabe eta Okzitaniako Tolosa (Frantzia) ingurutik etorri ginen. Han delta handi bat zegoen eta handik honaino aldapa malakartsu bat, ezponda. Prozesu bortitz eta katastrofiko batzuen bidez iritsi ginen maldan behera. Bidaia gogorra izan genuen, ehunka edo milaka kilometro ibiliz. Eta baita abiadura ederra harrapatu ere bidean, gu karreatu gintuzten korronteez 100-200 km/h-ko abiadura ere izaten baitzuten. Pirinioak altxatzen ari ziren garai hartan, higadura handia zegoen bazter guztietan eta ibaiak oso handiak ziren. Horregatik Frantzia alde horretan hasi eta Bizkairaino ere iritsi gintezkeen.

Denak Bizkairaino? Ez, denak ez, batzuk bidean geratu ginen. Sedimentuak zeramatzen korronteez Pabe eta Tolosatik zenbat eta urrunago, mantsoago mugitzeko ahalmena zuten. Mantsoago ibiltzean, sedimentuak eramateko indarra ere txikiagoa zuten. Horregatik, gure geruza berdinak Zumaian hemen baino estuagoak dira, Zumaia jatorritik, Pabe eta Tolosatik, urrutiago dagoelako. Hondarribiara joanez gero, berriz, geruzak potoloagoak dira eta hondar aleak ere lodiagoak.

“Harriak, ordea, bizigabeak dira, inerteak. Gizakion bizitzarekin konparatuz, oso mantso sortzen eta eraldatzen dira.”

“Hareharria, tupa eta tupa, hareharri. Labarra osatzen dugu eta binaka gabiltza. Tarta batean, bata hojaldre orria eta bestea krema.”

“Prozesu bortitz eta katastrofiko batzuen bidez iritsi ginen maldan behera. Bidaia gogorra izan genuen, ehunka edo milaka kilometro ibiliz.”

“Horregatik, gure geruza berdinak Zumaian hemen baino estuagoak dira. Zumaia jatorritik, Pabetik eta Tolosatik, urrutiago dagoelako.”

“Motondokoak eta Txankako harrobikoak, haiek dira Orioko arrokarik inportanteenak. Eta badirudi ez zaretela horretaz konturatu. Azkenaldian ez dituzue oso ondo zaindu eta!”

“Joan Goiko Kalera eta erreparatu hango etxeei. Elizari berari. Itxaspeko arroken kresal usaina dute; ez al duzue aditzen?”

Nondik?

Baina nola jakin orain dela 45 m.u. nondik etorri ginen? Gure arrastoei begiratu beharko horretarako.

Detektibe lanetan hasiz gero konturatu zinatekete gu ekarri gintuzten korronte haiek tamaina handiko harriak ekartzeko gai zirela. Harri haiek itsas hondo sakonean, lokatzaren gainean markak egiten zituzten. Korrontearen norabide berean, marka luzexkak eginez.

Detektibe, hasi hondartzatik Itxaspe baserrira doan aldapan gora eta geratu orain gutxi arroka koskor handiak erori ziren pare horretan. Hortxe aurkituko dituzue marka luzexka eta ilunak. Goldearekin egiten diren ildo modukoak dira, erreparatu eta ikusiko dituzue! Eta brujula bat eskuan baduzue korronteez ekialdetik zetozela ere erraz konturatuko zarete.


Itsasoazpiko ubidea

Hala ere, Orion garrantzia handieneko harriak ez gaude itsas labarrean. Herriaren beste puntara jo behar duzue haiek ezagutzera, Txanka eta Mota ingurura. Trenbidea pasatzeko egin berri duten Mota azpiko tuneleko arroak eta Txankako harrobi zaharreak daudenak berdinak dira, garai berean sortuak. Geruza bera osatzen dute, alegia. Haiek dira Orioko arrokarik inportanteenak. Eta badirudi ez zaretela horretaz konturatu. Azkenaldian ez dituzue oso ondo zaindu eta!

Labarrean gauden harri gazteen ondoan, haiek zaharrak dira, jakituriaz beteak. Gainera, toki pribilegiatuan sortu ziren, ubide baten barruan. Haien adinekoak dira Zumaiko flysch-ean daudenak ere. Baina Zumaian ez zuten ubiderik bete, bai Orion, ordea. Zumaiarrak, izanaz gain, izena izatera ere iritsi dira, 2010ean izendapen bereziak lortu baitzituzten: estratotipoen ‘urrezko iltzeak’ izendapena jaso zuten nazioartetik.

Mota eta Txankako harriek izena ez badute ere, badute izana. Izan ere, duela 65 m.u. itsas sakoneko ubide erraldoi batean pilatu ziren. Gaur egun ere bada antzeko ubiderik, ozeanoak zeharkatu, milaka kilometro egin eta sekulako sakonean doazenak. Ozeano Atlantikoa zeharkatzen duena, esaterako.

Horrelako ubide sakon eta handiek ‘u’ formako geometria osatzen dute. Haiek zeharkatzen dituzten korronteez sekulakoak direnez, harri handiak eramaten dituzte. Horren adibide da Txanka eta Mota ingurua. Eta horregatik gu bezalako harea eta lohiz osatutako arroak baino handiagoak dira harrobi zaharreak.



1.- Itxaspera bideko lorratz fosilak. 2.- Orioko labarra. 3.- Geruzamendua. 4.- Ripple-ren fosilak. 5.- Txankako harrobia. HERRIO

GEOHIZTEGIA

Arroken hizkuntza hobeto jarraitzeko, hemen duzue geohiztegia, geologiaren oinarrizko hiztegia, zuentzako jaso duguna:

Itsaslabarra: itsasora begira dagoen mendi malkarra. Itsasoak berak bere higadura lanaren ondorioz sortutakoa. Erliebe bizikoa.

Flysch: itsaso hondoan, sakonera handietan, bat-bateko uhal handiek sortutako geruzen segida. Pilaketa horiek ehunka-milaka metroko lodierakoak direnean.

Delta: ibaiaren bokale inguruan metatzen den sedimentu piloa, hiruki forma hartzen joaten dena.

m.u.: milioi urte.

Geruza: kapa, beta.

Tupa: lohia, buztina, garai batean lokatza zena gogortu ondoren sortua.

Uholde: uhal, urek gainezka egiten dutenean.

Hareharria: hondar alez osatutako arroka, zementu baten bitartez gogortua. Igeldoarria.

Higadura: arroken jatea, desegitea. Harrien birrintzea, garraiatzea eta erliebearen leuntzea.

Estratotipo: garai geologiko baten ezaugarriak ongien erakusten dituen ebakia, erreferentziazkoa edo ereduzkoa dena.

Informazio gehiago web orri hauetan aurki dezakezue:

<http://zthiztegia.elhuyar.org/>

<http://www.geoparkea.com/>

<http://www.algorri.eu/home.php>

<http://www.luberri.org/euskera/index.html>

<http://zientzia.net/artikuluak/euskal-herriko-kostaldea-viii-itsaslabarrak/>

<http://zientzia.net/artikuluak/euskal-herriko-kostaldea-xi-gipuzkoako-itsaslabarr/>

<http://zientzia.net/artikuluak/oria-negarra-darion-ibaia-i/>

<http://zientzia.net/artikuluak/oria-negarra-darion-ibaia-eta-ii/>

<http://www.youtube.com/watch?v=g-jlB1taCcw>

<http://flyschzumaia.blogspot.com.es/>

Balioa

Gure arrokek diotena entzunda ondorio askotara irits gaitzke. Garrantzitsuena, daukaguna gehiago ezagutuz hura miresteke eta maitatzeko bidea egiten dela. Bizigabeak izanik ere, arrotz gertatzen diren materialeek beren balio badutela ulertzen dugu.

Ikusi dituzuen argazkiak ateratzeko Orioko bide ezkutuetan ibili gara. Itxaspera pasa eta ote eta sastraka artean aurrera egin dugu. Han, arroka geruza lodikoteen azpian, armiarma sare itxurako zuloei begira zoratu egin gara. Oteizaren zuloak hutsak baino jakinduriaz beteak baitaude eta gu liluratzeko artea baitute. Arte naturala, naturaz betea.

Hemen gure proposamena: sasoiko bazaude, jarraitu detektibe lanetan eta jaitsi arroketa, ezagutu gure labarra bertatik. Konpainia beharko duzu horretarako, ez baitira bakarrik ibiltzeko tokiak, eta ea gu bezainbeste txoratzen zaituzten. Izan ere, gurea ez da Zumaia edo Jaizkibel, baina bada handia, gurea delako, eta horrek egin behar du berezi.

Ibiltzeko eta bide malkartsuetan gora eta behera irristan aritzeko ezintasunak badituzu, berriz, joan Goiko Kalera eta erreparatu hango etxeei. Elizari berari. Itxaspero arroken kresal usaina dute; ez al duzue aditzen?

Hori da, beraz, Orioko Igeldoarriak dioena. Entzun ondo haren hitzak.

Maiatzaren 6a

arri sentimenduak adieraztea kostatzen zaigu. Badirudi muxuak, malkoak, besarkadak eta antzekoak giltzapean ditugula. Zulo ilun batean sartuta. Eskerrak horiek adierazteko ez den xoxik ordaindu behar, bestela ez nuke imajinatu ere egin nahi. Gaur egun, gauza gutxi daude doakoak eta horiei ere prezioa jartzen badiegu, akabo.

Nire iritzi xumean, tabu gehiegi ditugu barneratuak, kate gehiegi eta pixkanaka-pixkanaka horiek hausten joan behar genuke. Badakit gauzak barnean gordetzea ez dela ona. Baina, jakin badaikit ere, barnean ditugun korapiloak askatzea ez dela erraza. Beldurra izan daiteke arrazoietakoa bat. Lotsa beste bat. Ditzosozko lotsa. Eta gaurko honetan nire buruari jarriko diot lotsaren etsamina.

Bada denbora batez barruan dudan sentimendu bat. Kanporatu nahiko nukeen sentimendu bat. Askatu gabeko korapilo bat. Eta aurpegira esaten ausar-

tzen ez naizenez, txoko honetatik egitea pentsatu dut.

Pasa berri da Amaren Eguna eta lerro hauek erabili nahi ditut nire oparia egiteko. Benetako oparia emateko. Lehen, nerabezaroan, ez nintzen konturatzen gurasoek gugatik egiten zuten, beti iruditzen zitzaizkidan *plasta* batzuk: orain hau egin behar dudala, eta orain bestea. Beti kontra zeuden sentsazioa nuen, beti ni izorratzen ari zirela. Baina, zorionez, denborak dena sendatzen omen du; baita hau ere. Orain, denbora gutxiago pasatzen dut berekin, nik neuk egin behar ditut nire lanak. Orain ez dut inor ipurdia garbitzeko.

Bada barruan dudan sentimendu bat, askatu gabeko korapiloa. Aurpegira esatea ausartu ez eta hona ekarri dut

Berandu baino lehen konturatu naiz gurasoek zenbat egiten duten guregatik. Gure onagatik. Soilik gure onagatik. Nahiz eta guk, seme-alabok, hanka sartu behin baino gehiagotan, beti hor daude laguntzeko prest. Kapritxoren bat dugula, berak hor, ahal duten moduan guri kapritxo hori emateko prest. Eta hori guztia bueltan ia ezer jaso gabe. Noizbehinka, oso noizbehinka, eskerriaskoren bat edo muxu pare bat, baina gehienetan, marmarra eta aurpegi txarra. Zuena bai pazientzia eta meritua, bejondeizuela!

Beraz, maiatzaren 6a pasa dela aprobetxatuz, lotsak alde batera utzi eta inoiz aurpegira esaten ausartu ez naizen hitzok zuentzat dira. Ederrena aurrez aurre esatea izango ez, baina badirudi mozkortu gabe ez naizela kapaz.

Askomaite zaituztet, ama ta aita. Eskerrik asko nigatek egin duzuen guztiagatik eta jakin nire bihotzean egongo zaretela bizitza osoan. Muxu bana.

Seme bihurria.

Taroeko bakallaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutzialak

Donostia Gurea 3 - Tel: 943 24 07 74 - Orio

Goizeko

KAFETEGIA

943 83 28 55

Ara Larruxuri 33 baretan - ORIO

Autobus parada ondoan

gizarte kutxa

Orioko Herri Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

ITZALA

karretan jokatzen ari garenak

tel. 943 33 12 59

libe

dietetika

eikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO 943 53 64 94 :: 697 23 86 56

(santia Anartzale kaleak) libegarmenda@gmail.com

iñaki argazkiak caperochipi

ezkontzako asmarik bai?

www.ikape.ro.com/ezkontzak 659378751 ikape.ro@ikape.ro.com

TAILER MEKANIKOA MANTEROLA S/L

TRAMONKAK BARRILAK

Santiago Ouzoa - 18 postokutua

Tel. 943 830 743

Fax. 943 134 634

E-mail: tmanterola@euskalnet.net

20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR

R

180 0000

Eslerako balbula AENOR kalitate zuztaginduna

Eskola erotik aldatu!

Eskolak erotik aldatuko nituzke! Ez pixka bat hobetu, hitz politetz bildu, eta, azkenean, orain arte bezala jarraitu. Ez! Ahaztu orain arteko guztia eta zerotik hasi. Baina oraingoan umeengan pentsatuz.

Zeren ikastea ez da belarriekin egiten den zerbait. Norbaitek kontatu eta zuk entzun. Ikasi eskuekin egiten da: ukituz, sentituz, probatuz... Ikasi begiekin egiten da: besteek egindakoak ikusiz. Ikasi buruarekin egiten da: ideiak sortuz eta haiek gauzatu. Eta hanka sartuz eta errepikatuz. Bestea, entzunez bakarrik barneratu dugun hori, ahaztu egiten da. Zenbat ordu eman ditu gutako bakoitzak umetan eskolan aspertuta, alferrik? Hori nahi al dugu gure umeentzat? Zenbat aldiz errepikatu behar zaio gai horretan motibaziorik ez duen ume bati gauza bat, barnera dezan? Eta behin bakarrik esanda, ez al da nahikoa jakin-minez dagoen umearentzat?

Gogoratzen dut umetan zerbait nire kabuz deskubritzen nuenean. Zer gertatzen zen ulertzeko zorian nengoenean, urduri eta emozionatuta izaten nintzen. Poza barreraino sartzen zitzaidan! Bestetan, saiatu eta ateratzen ez zitzaidanean, frustratuta sentitzen nintzen, begiak malkoz beteta. Baina hori da ikastea, ez besterik! Emozioekin erabat lotuta doa. Bestela, emoziorik ezean, ikasitakoa ez da barneratzen. Nori ahazten zaio, ordea, zirrarez deskubritu zuena? Eta zuek askotan sentitzen al zenuten zirrara hori eskolan? Edo emozioak itzalita zenituzten?

Nolako eskola nahi nukeen galdetu zidaten lehengoan. Ume baten azalean jarri naiz eta hauxe nahi nuke: mendian dagoen eskola batekin egiten dut amets. Basoa, erreka, goroldioa, lurra, hondarra... Lanabesak nonahi eta liburu ikusgarriez beteta.

Ez dut eserita egon nahi! Beno, gaur bai, Egiptoko liburu batekin emozionatuta baina go, faraoiekin txundituta. Baina, agian, bihar kanpoan egon nahiko dut, belarretan etzanda, behatzak lurrean sartuta intsektuak nola bizi diren ikusten, harrituta. Eta etzi, agian, irra-

tian atomoez hizketan entzun dudanez, horiek zer diren galdetuko diot irakasleari. Zeren ez dut asignaturarik nahi. Egun bakoitzean motibatzen nauena egin nahi dut, horretan aritu buru-belarri, ikasi eta ikasi, nire jakin-mina asetzen den arte beste ezer egin gabe.

Ez dut nahi helduek niri mundua deskubritzeko plazerra kentzerik –gogoratzen dut gure alabak, etxean margotzen ari zen batean, kasualitatez bi kolore nahastu eta kolore berriak sor zitzakeela ikusi zuenean. A zer poza!– Ez dut nahi inork niri, aurrez bere jakintza transmititu nahi izateagatik, halako momentu bereziak lapurtzerik.

Irakurtzen ikasi nahi dut. Baina ez *adina iristen zaidanean*. Liburu batek liluratuta uzten nauenean ikasi nahi dut, hura ulertzeko gogoari eutsi ezin diodanean. Beharrak eraginda. Ez lehenago! Batuketak egiten ikasi nahi dut... dendaritara jolasten gauzak zenbartzeko eta batzako beharra sentitzen dudanean.

Nire ideiak garrantzitsuak diren toki batekin egiten dut amets. Nire ideiak gauzatu eta esperimenta ditzakedan tokia. Eta nire ideien garrantzia ulertzen duten helduak nahi ditut ondoan. Nola izango naiz, bestela, heldutan kreatiboa?

Ideiez eta lanaz betetako goiz intentso baten ondoren, nekatuta, atsedean hartzeko eta nire baitan biltzeko beharra dudanean une horretan, besarkada bat emango didaten helduak nahi ditut. Eta ideia bat gauzatzean, behin eta berriz saiatu, eta ezinak eraginda amorruek gainezka egiten didan momentuetan... nire frustrazioa entzuteko prest dagoen heldua nahi dut ondoan, baita negar egin behar badut ere. Berriz saiatzeko indarra hartuko dut horrela.

Amesten dut toki goxo batekin, non naizen bezalakoa azaldu naitekeen. Inork epaituko ez nauen toki bat: ez bizkorra edo tontoa naizen, ez lotsatia edo ausarta. Toki bat seguru sentiarazten nauena, badakidalako han inork ez nauela irainduko, ez joko, ez manipulatu. Horrela, seguru sentituko naiz, eta nire ideiak gauzatzeari ekingo diot. Alegia, ikasteari.

Karkara sentitu

Erraz idatzi izan ditut, normalean, KARKARAN aldiro egokitu zaizkidan zutabeak –nolakoak aterra diren, jakina, beste kontu bat da–: gaia erabaki, esan beharrekoa buruan antolatu eta bri-brau idatzi izan ditut. Oraingo hau zaila egin zait, ordea; nekeza baita agur esatea eta horrek sortzen dituen emozioei papererako bidea egitea.

Aldizkariko lau *beteranook* –Ana, Pat, Miren eta neronek– erabaki dugu San Pedro jaietan utziko dugula KARKARA taldea, aurrerantzean gazte(ago)ek goberna ditzaten hemengo kontuak. Pentsatu dugu badela garaia, batetik, guk erretiroa hartzeko eta, bestetik, gazteei aukera uzteko, proiektua berriro dezentzen.

Zorionez, KARKARARI segida egokia emateko abildaderik ez da falta Orion eta Aian, eta gazteek ondo asmatuko dute orain dela 23 urte sortutako su txikia zaintzen eta hauspotzen. Trukean, guk bezala, asko jasoko dute, izugarri, eta hau bezalako despedida zutabeak idazteko garaia ailegatzen zaienean, olatuka etorriko zaizkie, guri bezala, urtetan pilatutako bizi eta emozioak. Eta olatu horiek begiak bustita idatziko dute azken zutabea, guk bezala..

Maidar Arrillaga Sarasola · 138. Kol. zenb.
Arantzale 63 · 20810 · Orio · Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODOLÓGIA ZENTROA




PATXI OLIDEN
 Herriko Erreka Aldean 19
 943 83 00 04
 30909 AIA-ORIO

Hamengo haragia,
 Etxeko produktuak: tripa, olatzi,
 bokarra, txoritxo, krokaketak...

Eusko Gudari, 25 - Tel. 943 83 00 10

Portu ERRETEGIA
 Herriko Erreka Aldean 19
 943 83 00 04
 30909 AIA-ORIO

Krokaketak, txoritxoak, bokarra,
 olatziak, olatziak, olatziak...


Sagasti LEIHOAK
 ROBERTO BAGASTI
 Tf / fax: 943 13 00 77
 sagastileihoak@telefonica.net
 Arrantza kalea, 65
 20610 Orrio (Gipuzkoa)

SARASUA ERRETEGIA
 Plater bereziak:
 Arrain zopa
 Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

FISIOTERAPIA, Gaitzer Arretak eta NAIKIN WILSONEN
 METRIZOMETA, Gaitzer Aldean:

sinergia *investigacion fisioterapia*
 Ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 93

943 83 09 86

KOASTA
 Wifi zerbitzua
 Kopak, gau giro aparta...


kutixi
 kafetegia
 GOSARI-GOMAK
 Herriko Erreka Aldean 19
 943 83 00 04

Herriko Erreka Aldean
MARIJO

 Neska eta mutilentzat
 Eusko Gudari, 8 - bajo
 Tel. 943 13 47 29
 ORIO

Sukalde eta bainuen erreformak
XANTI MUJIKA
 Igeltseritza
 699 46 76 21
 943 13 10 37

Lizaso dekorazioa

 Eusko Gudari, 48
 Tf. 943 83 09 84 Fax: 943 83 87 16

LOBETXU JATEKIA

 Eusko Gudari, 18 - Tel: 943 83 00 07

LURDES
 Herriko Erreka Aldean

 Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24


IGLESIAS SARRILAGILEAK
 Javier Iglesias Fernández
 637 723 308
 iglesiasarrilagileak@gmail.com
BONBO ORIO
 - ATEAK INDIETAN DITUGU
 - BARRALA ZILINDRO ALDAERTAK
 - ATEAK IKTERO MALDURDI ALDAERTAK
 - KOMUNITATEENTZAN ZERBITZUA
 24 ORDEN ZERBITZUA

KOLON TXIKI
 Herriko Erreka Aldean

 Herriko Erreka Aldean, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

Herriko Erreka Aldean
MARIJO

 Neska eta mutilentzat
 Eusko Gudari, 8 - bajo
 Tel. 943 13 47 29
 ORIO

MIRANDA
 Herriko Erreka Aldean 19
 943 83 00 04
 30909 AIA-ORIO
 Herriko Erreka Aldean 19
 943 83 00 04
 30909 AIA-ORIO
 Gudari bidea, 1 - 685 42 32 70 - SARATZ

ODITZ
 Herriko Erreka Aldean 19
 943 83 00 04
 30909 AIA-ORIO
 Herriko Erreka Aldean 19
 943 83 00 04
 30909 AIA-ORIO
 tel. 943 83 00 89

Gaia emanda Umeak haurreskolara ala etxean?

Haurreskolen matrikula zabaldu da eta umeak horietara eramatea ala etxean geratzea egokiago den galdetu diegu bi gurasori. **Zein da aukerarik onena?**

Haurreskolara bai, zergatik?

Umea haurreskolara eramateko erabakia, lana egin beharrenean ondorio izan

zen hasieran. Gure kasuan, goiz partean bakarrik eramaten ditugu, arratsaldean gure artean konpontzen baikara.

Egia esan, eramaten hasi ginenean pena eta beldur pixka bat ematen zigun, baina berehala ohartu ginen zenbat onura ekartzen zien gure umei beste artean ibiltzeak, jolasteak, bazkal-tzeak... gu berarekin izan gabe. Autonomia handia hartzen dute eta konfiantza ere bai elkarren artean dituzte lehiatxo horietan.

Guretzako soluzio bat da, lana egiteko askatasuna ematen digu edo beste gauzak egiteko denbora libre, arratsaldeetan beste era batera gozatzeko aukera izanez.

Aitona-amonak badituzte, baina ezin dira haiez egunero arduratu. Gaixoaldiak dituztenean eta haurreskolara eramanez ezin ditugunean, horien laguntza izaten dugu, eta txikiak direnean halakoak sarritan izaten dira.

Gure alaba zaharrena 9 hilabete zituela hasi zen haurreskolan. Oso amazuloa zen eta ez genekien zein erreakzio izango zuen. Egokitzapenaren ondoren oso ondo erantzun zuen. Gero, Ikasto-

Autonomia hartu eta konfiantza lantzen dute

lara hasteko garaian, primeran moldatu zen. Gainera, gu baserrian bizi garenez, goizean beste giro batean egoteak on egiten zion.

Bigarrena, aldiz, 4 hilabete zituela hasi zen haurreskolan. Hirugarren egunerako bakarrik geratu zen bere zaintzaile eta laguntxoekin eta oso pozik dabil gaur egun ere. Familiako kide bezala hartu ditu eta, jai egunen ostean edo opor garai ondoren, ikusteko irrikatan itzultzen da haurreskolara.

Alde negatiborik aipatze-kotan, gaixotasunena aipatuko nuke. Egia da haurreskolan edo beranduxeago eskolan, lehenengo bi urteetan, gurasoen artean esan ohi dugun bezala *dena harrapatzen dutela*. Sarri-sarri gaixotzen dira. Gastronteritisa, otitisa, barizela... Era horretan immunizatzen eta gogortzen joaten dira pixkanaka, baina ez da, ez, gustukoa izaten.

Laburbilduz, gure esperientzia erabat positiboa izan dela esanaz bukatu nahi nuke. Ikuspuntu pedagogikotik oso aberasgarria izan da eta pertsonalki oso goxoa. Umeak mimoz hartzen dituzte eta konfiantza osoa ematen digute. Berriz ere erabakia hartu beharko bage-nu, gauza bera egingo genuke. Haurreskola oso ona da gure haurren garapenerako. Lan fina egiten dute. Eskerrik asko, koadrila.

Jone Olaskoaga

Haurreskolako gurasoa

Onetik hobera

Etxe guztietan hala ez bada ere, gaur egungo familia gehientsuenetan haurreskola

bai/ez galderari aitona-amonak bai/ez galderaren erantzunak erantzuten dio. Osasuntsu eta, taxiak bezala, libre, al daude aitona-amonak? Bada, haurreskolako xoxak patrikartztea hobe da! Lanpetuta edo pattal baldin badaude, ez dago besterik, eta haurreskolara eramanez beharko dira seme-alabak. Soldataren zati dezentea kenduko dizute han, baina... krisiaren erauntsiari nola edo hala -tinko ere seguru aski, bai batzuek- aurre egin dioten lanpostu horiek ez daude galtzeko! Hau marka gero: umeak haurreskolara eramateko egin behar lan eta lana dagoelako eramanez behar umeak haurreskolara; a zer errota txoraa -errota denak bezalaxe-.

Horrela dago, bada, mundua: oso gutxi daude etxean eltxoei begira egoteko moduan, eta bizimodua aurrera ateratzeko xoxak behar dira poltsikoan -nirean hobe zu-

rean baino, jakina: makina baten filosofia- lanetik gutxi aberasten bada ere!

Xoxa horiek neurtzen ere jakin egin behar da baina. Norbaitek esan zuen bezala, *Asko al dek? Asko beharko dek! Gutxi al dek? Gutxiarekin pasau beharko dek*. Alegia, norberak kontuan hartu beharrekoa dela haurtzaindegi- ra bidaltzeko lan gehixeago egitea ala, lan gutxiareago egin, patrika gutxiareago berotu eta seme-alabekin denbora gehiago pasatzea.

Erabakia seme-alabaren esku utziz gero, ez legoke ez haurtzaindegi-rik, ezta eskolarik ere, badakigu. Bizimodu gogorra dela eta umeak

horrelako egoeretara lehenbailehen ohitzea hobe dutela esango du agian baten batek. Lanera gogoz -soldatarik jaso gabe ere joango litzatekeen espezie arraro horretako bateren bat- joaten denik ezagutzen al duzue? Bizitzan lan asko egin behar da-eta, hasiko al gara denok, lehenengo garaietako behin eta berriz kritikatu dugun egoera hartara itzuliz, ume moko garelana lanean, ohitzea? Gero ere nahikoa eskola, maisu-maistra, arau... izango dituzte seme-alabek, lasai!

Primeran pasako dute haurreskolan seme-alabek, horretan ez dut inolako zantzarik, baina etxekoekin -gurasoak edota aitona-amonak- bezain ondo ez, sekula ere ez! Edo ez luke hala izan behar!

Lore Berasaluze

Gurasoa

Umeak haurreskolara eramateko egin behar lan eta lana dagoelako eramanez behar umeak haurreskolara



Alos Quartet soka laukoteak adi-adi entzuten izan zituen kontzertura gerturatutakoak. KARKARA

Kontzertu didaktikoa

Kritika Alos Quartet

Musika emanaldia. Orioko Kultur Etxeko aretoan, Sokazko tresnen kontzertua.

Joan den apirilaren 26an, Alos Quartet soka laukoteak kontzertu berezia eskaini zigun. Taldea osatzen duten Xabier Zeberio –biolina eta *nickelharpa*–, Francisco Herrero –biolina–, Pello Ramirez –txeloa– eta Lorena Nuñez –biola– ibilbide desberdin eta zabaleko musikariak izanik, halako laukote baten ezohiko emanaldia izan genuen.

Izenburuak argitzen duenez, kontzertua didaktikoa izan zen; musikaz baliatu zi-

ren jotzen ari ziren tresnak erakusteko eta esplikatzen: sokazko musika-tresna horien barrenak nola osatzen ziren irakatsi ziguten kontzertuan –biolinek *arima* ere badutela ikasi genuen, adibidez–, nola jotzen diren, aspaldi nolakoak ziren, beste herrialdeetakoak ere erakutsi zizkiguten, Suediako *nickelharpa*-a, esaterako.

Horretarako erabilitako musika, gainera, entzuteko erraza izan zen, freskoa. Soka laukoteak nahiko sailkapen zehatzekoak izaten badira ere, ezohiko laukotea izan genuen. Askotariko musika motak jorratu zituzten: Mozart-etik hasi eta Xabierrek sortutako ezpata-dantzara; ur askotatik edan dutela nabarmenduz-edo.

Kontzertua mimoz eta goxotasunez prestatua zuten. Bertaratu ziren haurrek ere aulkietan eserita hasi bazuten ere, eszenatoki aurrean, lurrean eserita, bukatu zuten, musikak erakarri balitu bezala. Plazer handiz entzuteko kontzertua.

Hala ere, jende gutxi izan zen bertan, tamalez, Kultur Etxeko aretoa erdi beterik –edo erdi hutsik– azaldu baitzen. Horrelako musikari handiekin kontzertu aberasgarriak merezi duena baino jende gutxiago. Bertaratu ginenak, behintzat, asebeteta atera ginen, belarriak finduta eta gauza berri asko ikasita.

ANDOITZANTZIZAR

Ikasleak idazle
Intza Unanue

Kilometroak 2014

Gipuzkoako ikastolek antolatzen duten urteroko festa euskalduna da Kilometroak, herrietako ikastolei diru laguntza bat emateko, oso egoera txarrean egon ohi direlako eta, laguntzeaz batera, festa bat egiteko, edozein aitzakia ona baita halako festa alai eta handia ospatzeko.

Hemendik bi urtera, 2014an, hain zuzen, Kilometroen festa Orion izango da,

nahiz eta ez den

denbora asko gure herrian egin zela, oraingoan desberdina da, ez delako

izango beste herri

batekin batera. Aurrekoan Zarautzekin banatu baitzuen lortutako dirua, eta ibilbidea ere bi herrien inguruetan egin baitzen. Oraingoan, ordea, ibilbide guztia Orion eta bere lurretan izango da, eta lortutako diru guztia Orioko Herri Ikastolarentzat izango da.

**Hemendik
bi urtera, 2014an,
hain zuzen,
Kilometroen festa
Orion ospatuko da**



Santi Barranco aseguru-agentea

Aritzaga 2, 2. solairua ORIO

Tf. 948 561 398 - 659 218 221 e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

PERTS ANAK

A
K
O

M
A
Z

Alemania, PVC
Venezianak
Motornak...

Tel. 943 3329 e. Muzikaria 600 70 52 21

URAITZ

Lurinduria

Amurrua

ETXANIZ Tlf. 948 83 16 97

» INKESTA

Zer iruditzen zaizu Herriko Plaza asteburu eta jai egunetan oinezkoentzat bakarrik izatea?

178 erantzun jaso ditu galderak. %62 alde agertu da, %37 kontra, %1i bost axola zaio kontua eta %0k ez daki zer esan gai honen inguruan.

» OSPAKIZUNA



Zorionak, zarra!

Apirilaren 25ean bete zituen urteak Joxe Luis Kortak. Berak esango lukeen moduan 40+23 egin ditu aurten, gazte mantentzen dela jakinarazteko-edo. Familiakoek bestelakoa diote, 63 urte bete dituela eta, horren aitzakian, txoko honetatik zoriontzeko aukera baliatu nahi izan dute. Gozategi frutategiko iloben partetik, Oriotik, besarkada eta muxu handi bana bidaltzen diote Joxe Luisi; urte askoan!



HURRENGO GALDERA

Jaunartzea bai ala ez?

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emaitza 319. Karkaran argataratuko dugu.

» ZORIONAK!

Egunsenti abesbatzari

Afizioz bada ere ez da erraza talde batek 15 urte martxan jarraitzea, bertako jendea askorik aldatzen ez denean. Entsegu ordu asko, kontzertuak zer esanik ez... eta, gainera, ezarrria urratu gabe.

Egunsenti abesbatzak urte guzti hauetan egin duen lana txalotzekoa da: abestiak grabatu eta diskoan argitaratu, kantu-jirak antolatu, hainbat ekimeni doinuak jarri... dituzte, eta guztia gaztetxo batzuek izango luketen ilusio eta energiarekin.

Herritar guztiei gonbita egin diete maiatzaren 13ko kantu-jirarako. Beren lanari aitortpena emateko eta zoriontzeko modurik onena, haien alboan abestea izango da. Ziur pozik jartzen direla!

fitrium
Administrador de fincas

ZUEN ETXETXABE ELKARTEA KUDEATZEKO ERA BERRI BAT, EROSOAGOA ETA GARDENTASUN HANDIAGOZ

- Egutegi berria eta berri iruzki garria zure etxeko inguruetan 3000m² baino gehiago erakargarri eta erakargarri.
- Zure etxeko inguruetan, 24 orduko zerbitzuak eta 24 orduko zerbitzuak.
- Zure etxeko inguruetan, 24 orduko zerbitzuak eta 24 orduko zerbitzuak.

fitrium, fincas, Gotagoñe 14^o 204 del CAJADITAL | Tfn: 656 309 237

SOLOZABAL
autoeskola

Fuzko Gudari, 30-1, ezk
telef: 943 83 08 12

BERME Aholkularitza S.L.
Zure eta zure enpresa baten

- ENPREZAREN AHOZKORTASUNA
- ENPREZAREN PLANEA
- ENPREZAREN JESURUA
- ENPREZAREN ENBARKUNTZA
- ENPREZAREN ENBARKUNTZA
- ENPREZAREN ENBARKUNTZA

José Manuel Bermeo
656 309 237

Bermeo & Bermeo
ENPREZAREN AHOZKORTASUNA

uranga
aliprox enpresa

Aliprox

Fuzko Gudari, Iruia 15-15
GRIO
943 83 38 75



Alaren antzera joango zen soldaduen txanela 1873an; baina, orduan ez bezala, neska gazteena ondo atera zen.

19 soldadu itota erriean

Oroimenaren kutxa

Historia aiez ale osatzen da: batek idatzitakoaren gainean egiten du hurrengoak bere ekarpena. Halaxe ari da gertatzen Oriokobarraren historiabeltzarekin ere. Donostian bizi den Xanti Gurrutxaga oriotarrak idatzi zigun, noiz eta KARKARAN Laureano Oliden zenaren istripuaren berri irakurri zuenean. Xantik Donostiako Gotzaindegiaren artxiboan dokumentu bat topatu du, non Orion itotako beste batzuen berri jasota dagoen, herriko bikarioak sinatuta: *1730eko ekainaren 5eko eguerdian bost gizon ito ziren Orioko barran: Agusthin*

Yturzaeta, Agustin Soroa, Agusthin Ameztoi eta Ygnacio Echave oriotarrak eta Bizkai-ko Dimako Christobal Berascoechea.

Beste dokumentu bat ere topatu zuen Xantik artxibon, Juan Antonio Makazaga bikarioaren orde zegoen Borueta apaizak sinatua, non 1873ko abenduaren 17ko beste istripu latz baten berri ematen den: [...] *Orion kokatuta zegoen liberalen destakamenduko soldadu boluntarioen partida bat 1873/12/17ko arratsaldean Aia alderapastu zen, buru Juan Jose Celaya zutela, Zudugarai gainean dauden karlistei aurre egitera. Haiekin borrokan ibili eta gero, iluntzean, karlistek zepoan harrapatuta liberalek ihesi atera behar izan zuten*

Orio aldera, batzuk igerian eta beste batzuk txanela batean. Ontzia, jendez gainezka zetorrela, errio erdian hondorra joan zen, eta hemeretzi gizon ito ziren... Hurrengo egunetan itotakoen gorpuak agertu ziren, birenak ez beste guztiak, eta Orioko kanposantuan lur eman zitzairen...

Aktan zehaztuta daude itotakoen izen-abizenak, adina, lanbidea eta jatorria: Alberdi -48 urte, zaharrena-, Berrueta, Lecuona, Guinda -14 urte, gazteena-, Marticorena, Ormaechea, Goñi... Jatorria: Gasteiz eta Donostiakoak -bina-, Zaldibia, Hondarribia, Zarautz... Hori izango da Orioko historian hildako gehien eraginako istripua.

[IÑAKI ITURAIN]

» JAIOTAKOAK

■ Alba Padrones Mancha, Orion, apirilaren 17an


» EZKONDUTAKOAK

■ Jaime Elgarresta Larrarte eta Ainara Agirresarobe Manterola, Orion, apirilaren 21ean.

» HILDAKOAK

■ Kristino Arruti Lertxundi, Orion, maiatzaren 6an, 82 urte.
 ■ Martin Manterola Manterola, Orion, maiatzaren 2an, 77 urte.
 ■ Juana Elizondo Aduriz, Orion, apirilaren 28an, 89 urte.
 ■ Fakunda Iñarrea Bikondo, Aian, apirilaren 27an, 76 urte.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora: **943 83 15 27**



tel/fax: 943 89 00 69
 Etxebarri 4 - 28802 ZARAUZ

URBIDE
 ITURGINTZA BEROGINTZA
 GASA_BAINU ERAKUSKETA

XABIER URRETABIZKAIA
 - Instalazio elektrikoak
 - TDT antenak
 - Atezain automatikoak
 60 urte zerbitzua ematen
 943 83 17 74
 Arrutiakale 31 - 48110 OIOO

ASADOR XIXARIO
 Barrio Gasteizaren 11
 Tel: 943 83 11 18

Zaragueta Eskola Orio
 telefonoa: 943 85 48 52
 e-mail: 012137aa@hozkurtxa.net

“Argazki txukun bat ateratzea ez da kamerako botoia sakatzea bakarrik”

Iban Egiguren

Argazkilaria

Kamera atzean egotea nahiago du, argazkilari gehienek bezala; beraz, argazki gutxitan ikusiko dugu Iban Egiguren. Kamera eskutan ibiltzen da sarri, eta askotariko irudiak ateratzen ditu. Kamera atzean dagoen horren berri jaso dugu elkarrizketan.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Txikitatik etxean jaso duen zerbait da Iban Egigurenentzat argazkilaritza. Aitona margolaria zuen, eta hark argazkiak ateratzen zituen gero margolanetarako ereduak izateko. Aitonaren lanek erakarritza-edo, pixkanaka bere egin du argazkilaritzarekiko zaletasuna.

Noiz hasi zinen argazkilaritzan?

Orain dela urte batzuk. Aitonaren kamera, *Yashica* zahar bat, hartu nuen, reflexa, karretedun haietakoa, eta harekin hasi nintzen lehenengoak ateratzen. Errebelatu ere nik egiten nituen. Gero, digitala sartu zen. Tarteko kamerarekin, reflexaren eta konpaktoaren arteko batekin, hasi nintzen, baina ikusi nuen zerbait gehiago behar nuela, nire zaletasuna gero eta handiagoa baitzen.

Nolakoak dira zure argazkiak?

Denetariako ateratzen ditut. Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen ikastaro bat egin nuen, eta orain hango kide naiz. Elkartearen, hilabeteko, gai bat aukeratzen dugu eta horretan oinarritutako argazkiak ateratzen ditugu; esaterako: euria, itzalak... Azkena egin dudana ikastaroa *timelapse* teknikarena izan da. Argazki pila bat, bata bestearen segidan atera, eta gero, programa berezia erabili, bideoa egiteko era berria da. Adibidez, 3 minututik beherako lehen bideoa egiteko 3.500 argazki atera behar izan nituen.

Aro digitalean, edozein da argazkiak ateratzeko gai. Argazkilariazen figurak pisua galdu al du?

Argazkilaritza digitalak aurrerapenak ekarri ditu. Karreteak errebelatzen diru asko joaten da, eta alde sekulakoa da.

Ni ez naiz argazkilari profesionala, zalea baino ez, ezkontza batzuetako eta liburu baterako argazkiak atera ditudan arren. Baina argazki txukun bat ateratzea ez da kamerako botoia sakatzea bakarrik.

Nondik atera, momentu aproposa aurkitu, eguzkiak nondik jotzen duen begiratu... gauza asko hartu behar dira kontuan horretarako.

Zaletasunetik lanbidera pasatu al da zuretzat argazkilaritza?

Egin ditut enkarguz argazkilari lan batzuk; beraz, ez dut baztertzen egunen batean bizimodua argazkilaritzatik ateratzea. Gustatuko litzaidake zaletasuna lan bihurtzea. Kontua ez da argazki pila bat atera eta norberak gordetzeko besterik ez izatea.

“Kontua ez da argazki pila bat atera eta norberak gordetzeko besterik ez izatea. Beraz, jendeari erakusteko web orri batean jarri ditut”

“Bidaietan ere atera izan ditut argazkiak: Mexikon, Turkian... Kanpora joaten garenean dena da berezia eta argazkietan islatzea gustatzen zaigu”

Horregatik jarri dituzu zure web orrian ikusgai?

Bai, hainbat urtez ateratako argazki pila bat neuzkan eta niretzat bakarrik zirela ikusi nuen; beraz, jendeari erakusteko www.ibanegiguren.es web orrian jarri ditut eta nire lana ikusita gustuko duena jar daiteke nirekin kontaktuan. Jendea hasi da argazkiak ikusi eta komentarioak egiten. Orain, poliki-poliki, egunero ateratako argazkiak, *timelapse*ak... sartuko ditut hilabete bukaeran.

Ba al duzu ametsetako argazkirik?

Argazkilaritza oso kontu irekia da, eta ez naiz irudi zehatz baten bila joaten. Denboraldi batean gai batzuk gehiago lantzen dira. Uda partean, adibidez, eguzkia sartzen-ateratzen ditut argazki asko, neguan elurrari edo animaliei... Beharbada, egunen batean, argazki bat atera eta oso gustura geldituko naiz, baina bila joan gabe. Gustuko tokiak badira argazkiak ateratzeko, eta bidaietan ere atera izan ditut: Mexikon, Turkian... Kanpora joaten garenean dena egiten zaigu berezi eta argazkietan islatzea gustatzen zaigu.



» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Lan eskaintza

■ Garbitzaile oriotarra behar da Balea elkarterako. Curriculumak elkarteko buzoian maiatzaren 25a baino lehen. ■ 6 eta 7 urteko bi neskari, etxean, ingeles eskola dinamikoak emango dizkien norbait behar dugu. Tf.: 618 911 008 eta 618 911 014. (Eba/Joseba).

Hartzeko

■ Animaliekin lurra lantzeko tresnak hartuko nituzke. Tf.: 697 750 196.

Saltzeko

■ Eraberritutako hiru logelako etxea eta trastelekua salgai Eusko Gudari kalean. 234.395 euro. Tf.: 636 386 663/ 607 580 841.

Lan eskaera

■ Edadetuak edo umeak zaintzeko. Orduka, etxean bertan bizitzen edo kanpoan. Esperientzia eta erreferentziak ere badituz. Tf: 630 850 167. ■ Neska euskaldun esperientzia duena umeak eta edadetuak arratsaldean zaintzeko prest Tf: 609 807 151. ■ Bi neska prest, edadetuak edo umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko. Orduka, etxean bertan bizitzen edo kanpoan. Tf: 699 184 832. ■ Neska arduratsua edadetuak edo umeak zaintzeko prest. Baita garbiketa lanak egiteko ere. Etxean bertan bizitzeko prest. Tf: 610 147 291 (Sadia).

■ Neska oriotarra etxeak eta ezkaratzak garbitzeko prest. Tf.: 666 036 780.

Alokatzeko

■ Orion Goiko Kalean etxea alokatzeko, 3 logelako, sukaldea, sala eta komuna. Garajea aukeran. Tf: 660 670 536 (Naroa) edo 699 716 253 (Lurdes). ■ Aita Lertxundi, 21ean 3 logela eta garajedun etxebizitza alokatzeko. Tf.: 609 917 399. ■ Orrio erdian 3 logelako etxebizitza dut alokatzeko. Amaia. Tf.: 608 164 971. ■ Neska oriotarra pisukide bila Orion etxea alokairuan hartzeko. Tf.: 645 707 547.

» ITSASOIA

Table with 4 columns: EGUNA, ITSASGORA, ITSASBEHERA, ILARGIA. Rows 11-25.

» ZAINTZAKO BOTIKAK

MAIATZA

- 11n, Lasa
■ 12 eta 13an, Gallo.
■ 14an, Iriarte.
■ 15ean, Larrañaga.
■ 16an, Zulaika.
■ 17an, Etxeberria.
■ 18an, Mutiozabal.
■ 19tik 25era, Lasa.
■ 26an eta 27an, Zulaika.
■ 28an, Gallo.
■ 29an, Etxeberria.
■ 30ean, Iriarte.
■ 31n, Azaldegia.
Gauetako zaintzako botika: Zulaika

- Azaldegia: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
Etxeberria: Gipuzkoa, 17. 943 83 23 98 Zarautz
Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
Larrañaga: S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
G. Artiñano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
Zulaika: Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Table with 2 rows: Donostia, Zarautz. Columns for times from 5:47 to 22:20.

ZARAUTZ-DONOSTIA

Table with 2 rows: Zarautz, Donostia. Columns for times from 6:08 to 22:47.

Gipuzkoan garraiatzeko begira: www.mugitu.com. Grisez dauden orduetan trenak daude asteburuetan.

» AUTOBUS ORDUTEGIAK

LANEGUNETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Table with 2 rows: Donostia, Zarautz. Columns for times from 6:55 to 23:05.

ZARAUTZ-DONOSTIA

Table with 2 rows: Zarautz, Orrio, Donostia. Columns for times from 6:45 to 22:00.

Lanegunetan, grisez dauden orduetako autobusak pasatzen dira Urbiletik.

ASTEBURUETAN

DONOSTIA-ZARAUTZ

Table with 2 rows: Donostia, Zarautz. Columns for times from 8:00 to 23:05.

ZARAUTZ-DONOSTIA

Table with 2 rows: Zarautz, Orrio, Donostia. Columns for times from 6:45 to 22:40.

Asteburuetan, autobus guztiak pasatzen dira Urbiletik. Grisez dauden orduak larunbatetako (lanegunak) zerbitzuei bakarrik dagozkie.

Aia eta Orrio arteko autobus zerbitzua Landabusek darama. Zerbitzuei buruzko informazioa lortzeko zenbait bide daude: www.landabus.com, Tf. 943 240114 sms-a 5280 zenbakira



Olinpiarrak mahainguruan

Londresko Olinpiar Jokoetan parte hartuko duten Oiana Blanco eta Edorta de Anta kirolariek hitzordu garrantzitsu horretarako dituzten asmoen berri jakiteko aukera izango da maiatzaren 12an, larunbatean, 19:00etan, Kultur Etxean. Iker Gurrutxagak gidatutako mahainguruan judokak eta arraunlariak, beren entrenamentuetan tarte bat egin, jendaurrean izango dira elkarrekin herritarren galderei erantzuteko prest.

Orio

Merienda

■ Maiatzaren 11n, Balea elkar-teak antolatuta, txokolate jana eta buruhandiak. 17:00etan, Kultur Etxe atzeko plazan.

Antzerkia

■ Maiatzaren 12an, *Goazen itsasora* haurrentzako antzerkia eta kantuak, Balea elkarteak antolatuta. 18:00etan, Kultur Etxe atzeko plazan, euria eginez gero, Kultur Etxean.

Erakusketa

■ Maiatzaren 14tik 25era, *Emakume kubatarak: iraultza bat beste baten barruan* argazki erakusketa, Euskadi-Kuba elkarteak antolatuta. 10:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara, Kultur Etxean.

■ Maiatzaren bukaerara arte, Maite Gartzia Lertxundi argazkilari oriotarrak, besteak beste bidaietan ateratako argazkien erakusketa. Salatxo taberman.

Bingoa

■ Maiatzaren 16an eta 23an, bingo saioa adinekoentzat. 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean.

Bilera

■ Maiatzaren 16an, antzerki taldea osatzeko bilera. 19:00etan, Kultur Etxean.

Traste zaharrak

■ Maiatzaren 16an, traste zaharren bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Aurretik udaletxera deitu behar da zein traste aterako dituzuen jakinarazteko. Tf: 94383 0346.

Hitzaldiak

■ Maiatzaren 17an, *Gazteluen suntsiketa* hitzaldia. Hizlaria: Joseba Asiron. 19:30ean, Kultur Etxean.
 ■ Maiatzaren 24an, *Independentziaren galera* hitzaldia. Hizlaria: Angel Rekalde. 19:30ean, Kultur Etxean.

Irteera

■ Maiatzaren 19an, piragua irteera Oria ibaian barrena, Herri natur taldeak eta Udalak antolatuta. Piraguarik ez dute entzatz izena emateko epea, maiatzaren 17ra arte Kultur Etxean. Irteera: 14.30ean, Anbulatorio ondoko arranplatik.

Informatika

■ Maiatzaren 14an, 11:00etatik 13:00etara eta 24an 09:00etatik 11:00etara, IT txartela ateratzeko azterketa, KZgunean.

Ipuin kontalaria

■ Maiatzaren 14an, Miriam Mendoza ipuin kontalariaren saioa, Balea elkarteak antolatuta. 18:00etan, Kultur Etxe atzeko plazan, eguraldi txarra eginez gero, elkartearen bertan.
 ■ Maiatzaren 24an, Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa. 18:00etan, liburutegian.

Saskibaloia

■ Maiatzaren 12an, kadete nesken Udaberri Txapelketan, Orioko Ikastola-Easo Orbelan, 16:00etan, Karelana.
 ■ Maiatzaren 13an, infantil nesken Udaberri Txapelketan, Orioko Ikastola-ZAST 1998, 16:00etan, Karelana.
 ■ Maiatzaren 19an, kadete nesken Orioko Ikastola-Bera Bera Balda, 16:00etan, Karelana.

Aia

Podologia

■ Maiatzaren 19an, podologoaren kontsulta. Ordua hartzeko deitu 943131144 zenbakira.

Erromeria

■ Maiatzaren 13an, erromeria Lutxurdio, Aitziber eta Berastegi trikitilariekin. 18:30etik 21:30era, Aristerrazu plazan.

karkarak behar zaitu

